

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



ARRI IKUSLEA

Urri-aldia zan, dortokeak be iñoz ikusi ez eban langoa. Pizti asko betiko galdu ziran edo goseak ilda edo ura bear ebelako.

Aramuak be bidea artu eban, zentzunez eta asko pentsatu-ondoren. Gogor egin jakon asteetan eginda eukan sarea iztea, baiña lurra arria lez egoanetik ez zan jausi sarera ez erlerik eta ez eulirik. Aizearen erea artuta, egoalderantza joan zan eta begi bidun arri bat aurkitu eban.

—Nekatuta nago —esan eban bere artean— Orain lo egingo dot eta biar ikusiko dogu.

Zugatz batera igon eta gaba an egiteko gertatu zan. Laster sagu bi etorri ziran, oneik be egoalderantza bidean. Begi bi eukazan arria ikusi ebenean, oiu egin eben:

—Au bai arri ikaragarria! Begi bi daukaz!

Ori esan ebenerako, biak dizdizak erreta geratu ziran.

Aramuak ori ikusi eban eta jatsi zugatzetik eta saguak arrapau eta gorde egin ebazan. Gero artu eban begi biko arria eta bide kurutze batera eroan eban.

Urrengo goizean, arriaren ondoan jesarri eta itxaroten egoan eta katu bat urreratu jakon:

—Nora zoaz? —Itandu eutson katuari.

—Egoalderantza —erantzun eban katuak abots meeagaz.

—Nik bart sagu bi arrapau dodaz —esan eban aramuak— 30 frankogaitik emongo dautzudaz.

Karuak ziran baiña onartu eban katuak eta sagu bien gaiñera egin eban jauzia eta bat-batean jan ebazan.

Ezpan-bizarrak legortzen ebazan artean, aramuak itaundu eutson:

—Zer ikusten dozu zeure aurrean?

—Begi bi daukazan arri bat.

Esan ebanerako ilda jausi zan katua eta aramuak gorde egin eban.

Gerotxuago leoi nabarra urreratu zan. Argal egoan eta ez eban ikaratuko boldots bat be.

—Nora zoaz? —itandu eutson aramuak

—Egoalderantza.

—Bart katu bat arrapau dot. Gura ba´dozu, 50 frakogaitik emongo dautzut

—Egia esan, katua neure senidea da —esan eban leoi nabarrak, baiña gure aldi au gogorra da eta bakoitxak bere buruari begiratu bear dautso.

Ordaindu eban dirua eta beingoan iruntzi eban katua.

—Zer ikusten dozu aurrean —itaundu eutson aramuak.

—Bagi bi daukazan arri bat.

Eta leoi nabarra be ilda jausi zan. Aramua pozik egoan:

—Onelan aberastu egingo naz eta bildurra izango dauste!

Baiña bidelariak atsedena artzeko zan zugatz aren gaiñean

Katamixerra egoan eta onek dana entzun eta ikusi eban.

Jatsi zan zugatzetik eta aramuagana urreratu zan eta onek itaun bardiña egin eutson:

Zuk zer ikusten dozu?

Aramuak erantzun eutson:

—Zer diñozu?

—Zer ikusten dozun itaundu dautzut! —esan eban aramuak.

Katamixerrak erantzun eban:

—Eta nik esan dautzut zer diñozun.

Aramuak erantzun eban:

—Ez da arri bat ikusten dozuna?

Katamixerrak erantzun eban:

—Zein arri?

Aramuak esan eban:

—.... daukazen arria.

Katamixerrak erantzun eban:

—.... daukazan arria.

Aramuak asarre erantzun eban:

—Jarraitu...

Katamixerak erantzun eban:

—Jarraitu...

—Zu bai, katamizerra, iñozoa zarala! Gauza erreza da, naikoa da esatea. “Begi bi daukazan arria” –erantzun eban aramuak asarre.

Eta berba ba orreik esan ebazanean, lurrera jausi zan aramua.

Or agiri da zer jazoten jaken arako esaldi au aiztu dabenai: “Egiten daunak, zigorra artu dagiala”.

✠ OLAZAR´tar Martin´ek